



Auzolandegiak, bestelako oporrak

■ *Ia mila gaztek parte hartuko dute Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 16 auzolandegitan*


DANIMARKA, Alemania, Eslovakia, Turkia, Frantzia, Austria eta Italiatik etorritako 18 gazte daude Urduñako auzolandegian, Bizkaian. Urduñakoa Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak uztail eta abuzturako Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan antolatutako 16 auzolandegietako bat da. Guztira, auzolandegiek 800 bisitariri egingo diete leku.

Urduña, Burgosko eta Arabako Aiara eta Arrasaria lurraldeek inguratuta, paraje aparta da. Bizkaiko jaurerri honetako bisitari atzerritar gazteak herria inguratzen duen harresiaren hormetako belarrak kentzen dihardute. Halaber, herriko Chopera del Prado eta Lendoño Beitia zuhiak eta beren inguruak garbitzen ari dira.

Aldamioaren goialdean, arnesari lotuta, bere eguneroko zeregina baltitz bezala mugitzen da Michael Schandenhofen austriarra: harresiko horman hazi diren landareak erroitik atera, solte dauden harritxoak kendu... Historia eta gaztelania ikasle hau hilaren 16an heldu zen Urduñara, taldeko gainerako 17 gazteak bezala, eta lehenengo egunetako besoetako mina kenduta, esperientzia primerakoa izaten ari dela dio.

Auzolandegiko giroaz aparte, Schandenhofenri asko gustatu zaio oso.

Bizkaiko kostaldetik egin zuten irteera, hemengo jendea eta, batez ere, «siesta egitea» — Urduñara etorri arte ez omen zuen horren berri —. Halaber, herrietako jaieta-



ko gaueko giroa oso gustuko du. 20 urteko gazte honentzat auzolandegien esperientzia ez da berria, besteak beste, Marsellan egona baita.

Edonola ere, «harrigarria» deritzo beste herrialdeetako jendea ezagutu eta beraiekin batera gauzak egiteko eskaintzen duten aukerari.

Jende berria ezagutzeko aukera

Harresiaren beste aldean, lan eta lan ari dira Claire Larbodie frantziarra eta Matus Navrat eslovakiarra ere. Pala eskuan, harresiaren ondoan dagoen hezurtetia hustutzen ari dira, Udalak lorategi bihurtu nahi baitu harresiaren eta elizaren arteko gune hori. 20 urteko bi gazte hauentzat auzolandegiak udako oporrak igarotzeko modurik egokiena dira; batetik, «uda hondartzan etzanda igarotzen duten» horietakoak ez direlako, eta bestetik, jende berria ezagutzeko eskaintzen dien aukeragatik.

Urduñatik Arabako Artziniegara salto eginenez, hamalau gaztek osaturiko beste auzolandegi bat dago. Bertako gazteak beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako-

ak dira, eta udalerriko Museo Etnografikoan jarriko dituzten egurrezko eta burdinakozko piezak eraberritzen eta sailkatzen ari dira eskola zaharrean —han jarriko dute museoa—.

Cristina Cascos Sevillarrak 22 urte ditu, eta Arkitekturako laugarren maila bukatu berri du. Udan bere ikasketekin zerikusia duen auzolandegi hau, eta ez da damutzen, antzinako piezak eraberritzen ikasteaz gain, taldean lana zein parranda egiteko aukera delako.

Urduñan diharduten gazteak goian hoietako bat-, besteak beste, bertako hezurtetia hustutzen ari dira. Artziniegan, lanabes zaharrak eraberritzen ari dira.

Gorane Agirre

URDUÑA